


Tokien deskribapena

A testua

- A** Politik bazez, politenetakoa zen Osinaldeko herria. Ordoki sakon batean, mendi tontor handiz inguratuta. Mendi horietakoren batera igoz gero, han behean ikusten ziren etxe zuri eder franko, batzuek elkar jotzen zutela, eta asko sakabanatuta. Bazirudien antzara sail bat edo larrean zebilen artalde bat.
- B** Ibai kozkor bat, ur bizi-bizia zeramala igarotzen zen herri ertzetik. Baziren ere bi edo hiru osin ur garbi-garbia eta sakona zutenak. Haiek ematen zuten hezetasuna herri guztian nabarmena zen. Osin horiek zirela eta, hartu zuen nonbait herri horrek Osinalde izena. Zuhaitz mardulak ageri ziren ibai ertzean: batez ere haltzak eta makalak. Baziren ere gaztain, intxaur, lizar, sagar, urritz eta beste mota askotako landareak.
- C** Herriaren gaineko aldean, bazez etxe eder bat, gehiena harri landuz egina. Aberatsena zirudien etxe hark. Inguru guztiak ondo apainduta ageri ziren. Bazegoen han lore ederrik asko, baita bazkari ugari ere. Etxe hura errota bat zen. Goiko Olea deitzen zioten. Bertan ehotzen ziren herri hartako gari eta arto gehienak. Herri txikietan ohitura den bezala, ogia ere bertan egiten zuten.

Joxe ARRATIBEL
Erramun eta Mirentxu, "Osinaldeko gizon beltza"
Erein (egokitua)



- 1** Beheko laburpenetan, paragrafo bakoitzean garatzen den ideia nagusia jaso dugu. Osatu.

hezetasuna • itxura • lanak • edertasuna • zuhaitzak • aberastasuna

- a Osinaldeko herriaren eta herriak goitik ikusita duen
b Osinaldeko ibaiko osinek eragindako eta ibaiaren inguruko
c Osinaldeko Goiko Olea etxeke eta han egiten diren

- 2** Azpimarratu testuan ageri diren izenondoak.

- 3** Zer konparazio erabiltzen du egileak Osinaldek goitik ikusita zer itxura zuen azaltzeko?

- 4** Zer zerrendatzen du idazleak bigarren paragrafoaren bukaeran? Azpimarratu.



Narrazio testuetan, garrantzi handia izaten du tokien deskribapenak. Deskribapen horiek gertakariak gertatzen diren tokia eta giroa irudikatzen laguntzen digute irakurleoi. Idazleak tokiaren ezaugarri nabarmenenak erakusten dizkigu, ez baitago den-dena deskribatzerik. Horretarako, baliabide jakin batzuk erabiltzen ditu, hala nola adjektiboak, konparazioak edo hitz zerrendak.